LESAKAKO UDALA
Plaza Zaharra, 1
31770 Lesaka (Nafarroa)
IFZ P3115200B
Telf. 948637005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

UDALEKO OSOKO BILKURAREN OHIKO BILERA.

Organoa: Udalbatza.

Batzarra: Ohikoa.

Deialdia: Lehenengoa.

Eguna: 2023.01.25.

Ordua: Arratsaldeko 19:00etan.

Tokia: Lesakako Herriko Etxeko Bilera Aretoan.

Bertaratuak:

Alkatea: Ladis Satrustegui Alzugaray jn.

Zinegotziak:

Mattin Etxabide Gartzia jn.

Iban Garro Alzuri jn.

Gabriel Txoperena Altzugarai jn.

Ioar Oteiza Goyeneche and.

José Luis Echegaray Andueza jn.

Ione Fagoaga Echarte and.

Iban de Prado Etxepeteleku jn.

Esteban Irazoqui Irazoqui jn.

Jose Maria Portu Ochoteco jn.

Ez da bertaratu:

Maitane Rodriguez Etxabide and.

Idazkaria: M. Jose Larrayoz Ariztegui and.

2015eko ekainaren 19ko Osoko Bilkuran erabakitakoarekin bat, bilkura guziaren soinu-grabaketa eginen da, geroago udalaren web orrian zintzilikatzeko.

Alkate jaunaren aginduz bilkura hasi da, eta, deialdiaren ordenari jarraituz, ondoko gai hauei buruz aritu dira:

1.- AZKEN BILKURARI DAGOKION AKTAREN ONESPENA.

Osoko Bilkurak, aho batez, onartu du, 2022ko abenduaren 23koa.

2.- 2022KO AURREKONTUAREN ALDAKETA: HASIERAKO ONESPENA (1/2023 ESPEDIENTEA).

Urtarrilaren 23an kontu-hartzaileak eginiko txostenean, adierazten du beharrezkoa dela aurrekontuaren aldaketa diru sarrerengatik sortutako kreditu gehigarriaren bitartez, Udalaren 2023. urterako aurrekontuan.

Jasotzen du 39.160,00 €-tako hornidura kontusail hauetan eta honela erabiltzeko:

-1.34200.6320000 partidan, frontoia berritzeko obrak.

Gastua finantzatuko da dirusarrerako 1.750600 partidarekin, Nafarroako Gobernuko dirulaguntza.

2023ko ekitaldiko aurrekontua gauzatzeko oinarrietako 12. puntuarekin bat etorriz, Udalbatzak aho batez erabaki du:

1.) Onestea aurrekontua aldatzeko 1/2023 espedientea.

2.) Erabaki hau Udalaren Kontu-hartzailetzari bidaltzea.

3.- 2022KO AURREKONTUAREN ALDAKETA: HASIERAKO ONESPENA (2/2023 ESPEDIENTEA).

Urtarrilaren 23an kontu-hartzaileak eginiko txostenean, adierazten du beharrezkoa dela aurrekontuaren aldaketa diru sarrerengatik sortutako kreditu gehigarriaren bitartez, Udalaren 2023. urterako aurrekontuan.

Jasotzen du 16.000,00 €-tako hornidura kontusail hauetan eta honela erabiltzeko:

-1.43201.6090000 partidan, Bizibide proiektuko azpiegitura.

Gastua finantzatuko da dirusarrerako 1.7700000 partidarekin, Nafarroako Gobernuko dirulaguntza.

2023ko ekitaldiko aurrekontua gauzatzeko oinarrietako 12. puntuarekin bat etorriz, Udalbatzak aho batez erabaki du:

1.) Onestea aurrekontua aldatzeko 2/2023 espedientea.

2.) Erabaki hau Udalaren Kontu-hartzailetzari bidaltzea.

4.-UA 27KO (BITTIRIA,32) FINKEN NORMALIZAZIOAREN BEHIN BETIKO

LESAKAKO UDALA
Plaza Zaharra, 1
31770 Lesaka (Nafarroa)
IFZ P3115200B
Telf. 948637005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

ONESPENA.

Jasota dago 27-EBko finkak normalizatzeko dokumentua (Bittiria kalea, 32), 2022/10/13an aurkeztua; sarrera-erregistroko zenbakia: 2022/4199; 2. poligonoko 7. partzela; eta bide-sarerako jabari publikoko lurzoru zati batena. Dokumentuak honako hauek ditu: finken erregularizazioa justifikatzeko eta deskribatzeko memoria bat; 1:200 eskalan ateratako lurzatien informazioa jasotzen duen dokumentazio grafikoa; katastroko eta erregistroko informazioa jasotzen duten eranskinak; eta Nafarroako Gobernuko Lurralde Aberastasunaren Zerbitzuak normalizazioaren eremuaren mugaketari buruz egindako txostena.

Hasierako onespenaren erabakia 2022ko abenduaren 1eko 240 zenbakiko Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta iragarki-taulan argitaraturik, ez da alegaziorik aurkeztu horretarako ireki den epean.

Espediente honetan jasotako dokumentaziotik ondorioztatzen da, espedientea izapidetzean, finkak normalizatzeko proiektua behin betiko onartzeko legez eskatzen diren baldintza eta izapide guztiak bete direla, Lurralde Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onartzen duen uztailaren 26ko 1/2017 Legegintzako Foru Dekretuaren 72., 74. eta 155. artikuluetan aurreikusitakoarekin bat etorriz.

Era berean, lortu nahi den normalizazioan, aplikagarria den araudiak hirigintza-kudeaketako teknika hori behar bezala erabiltzearekin lotzen dituen aurrekontuak biltzen dira.

Ondorioz, Udalbatzak, aho batez, honakoa ERABAKI DU:

1.) Behin betiko onartzea 2. poligonoko 7. partzelan finkak normalizatzeko proiektua. Finka horiek udalerri honetako Bittiria kaleko 32. zenbakiko UA-27 jarduketa-unitatean sartuta daude, bertan aurreikusitako baldintzetan.

2.) Ebazpen hau interesdunei jakinaraztea.

3.) Erabaki hori Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

4.) Hirigintza Kudeaketari buruzko Estatuko Erregelamenduaren 121. artikuluan aurreikusitakoarekin bat etorriz, normalizazio-proiektua Jabetza Erregistrora bidaltzea, behar bezala arrazoitzeko.

5.- JUAN LUIS IRAZOQUI ALZUGUREN JAUNAK ETA MIREN TELLECHEA ZOZAYA ANDREAK SUSTATURIKO HERRI-ONDASUNEI BURUZKO TRANSAKZIO

HITZARMENA.

1995eko urriaren 23ko Nafarroako 131. Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 457/1995 Foru Dekretua, urriaren 9koa, Lesakako herri-ondasunak berreskuratzeko Transakzio Hitzarmenaren Oinarriak onesten zituena. Nafarroako Gobernuak, 2020ko uztailaren 1ean egindako bilkuran, oinarri horien 5. artikulua aldatu eta onartu du.

Espedientean ageri da Juan Luis Irazoqui Alzuguren jaunak eta Miren Tellechea Zozaya andreak sustatu duen dokumentuaren zirriborroa.

Hitzarmenaren xede den azalera 89.310,00 m2-koa da. Eragiketaren ondorioz, 22.327,50 m2 partikularrarentzat izanen dira, eta 66.982,50 m2 herri-jabetzakoak.

Agiriak dagokion txostena darama, Andres Zelaieta teknikari jaunak egina.

Halaber, bada Nafarroako Gobernuko Herrilurren Atalak 2022ko abenduaren 22an idatzitako aldez aurretiko aldeko txostena. Hor adierazten denaren arabera, partikularrak beretzat hartzen duen finka baso zoru zuhaiztutzat eta ustiapen naturalerako babesteko lurzoru urbanizaezin gisa, mendiko larreak gisa sailkatua dago.

Zirriborroak Udaleko Mendiko Batzordearen oniritzia ere jaso du.

Espedientean, halaber, Udaleko idazkariak 2023ko urtarrilaren 20an eginiko txosten bat ageri da.

Hori dena ikusita, Osoko Bilkurak, kide guztien aho bateko botoarekin, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 116.1 artikuluak eta Toki Erregimeneko Oinarriei buruzko 7/1985 Legearen 45.2.n artikuluak (toki-gobernua modernizatzeko neurriei buruzko azaroaren 16ko 57/2003 legearen bitartez aldatua) eskatzen duten Udalbatzako legezko kide kopuruaren gehiengo absolutua lortuta, honako hau erabaki du:

1.) Juan Luis Irazoqui Alzuguren jaunak eta Miren Tellechea Zozaya andreak sustaturiko herri-ondasunen transakzio-hitzarmena onestea.

2.) Sustatzaileei jakinaraztea Herriko Etxera etorri beharko dutela hura sinatzera.

3.) Aitzineko puntuan xedatutakoa betetakoan, Nafarroako Gobernuari bidaltzea errandako dokumentu guzien kopia izapidetuak, hark onespena emateko, Oinarrietako 14. artikuluak dioenaren arabera.

4.) 2004ko apirilaren 30eko Osoko Bilkuran Udalak onartutakoaren arabera, herri-ondasunen transakzio-hitzarmenean sartzen den landa-lurreko metro koadroa 0,16 eurotan balioetsiko da.

6- MARIA ISABEL ALZUGUREN PETRIRENA ANDREAK SUSTATURIKO HERRI-ONDASUNEI BURUZKO TRANSAKZIO HITZARMENA.

LESAKAKO UDALA
Plaza Zaharra, 1
31770 Lesaka (Nafarroa)
IFZ P3115200B
Telf. 948637005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

1995eko urriaren 23ko Nafarroako 131. Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 457/1995 Foru Dekretua, urriaren 9koa, Lesakako herri-ondasunak berreskuratzeko Transakzio Hitzarmenaren Oinarriak onesten zituena. Nafarroako Gobernuak, 2020ko uztailaren 1ean egindako bilkuran, oinarri horien 5. artikulua aldatu eta onartu du.

Espedientean ageri da Maria Isabel Alzuguren Petrirena andreak sustatu duen dokumentuaren zirriborroa.

Hitzarmenaren xede den azalera 48.312,00 m2-koa da. Eragiketaren ondorioz, 12.078,00 m2 partikularrarentzat izanen dira, eta 36.234,00 m2 herri-jabetzakoak.

Agiriak dagokion txostena darama, Andres Zelaieta teknikari jaunak egina.

Halaber, bada Nafarroako Gobernuko Herrilurren Atalak 2022ko azaroaren 22an idatzitako aldez aurretiko aldeko txostena, Arrizu finkako zuhaitzen aprobetxamendua definitzea proposatuz (zuhaiztia María Isabel Alzuguren Petrirena andreak aprobetxa dezala, edo iratze hitzarmenez lurzorua eskuratzen duten Chantre anaiek eros dezatela). Hor adierazten denaren arabera, partikularrak beretzat hartzen duen finka kontserbazioko lurzoru urbanizaezin gisa katalogatuta dago, ustiapen naturalerako balioa duena, mendiko larreak gisa sailkatua dago.

Zirriborroak Udaleko Mendiko Batzordearen oniritzia ere jaso du.

Espedientean, halaber, Udaleko idazkariak 2023ko urtarrilaren 20an eginiko txosten bat ageri da.

Hori dena ikusita, Osoko Bilkurak, kide guztien aho bateko botoarekin, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 116.1 artikuluak eta Toki Erregimeneko Oinarriei buruzko 7/1985 Legearen 45.2.n artikuluak (toki-gobernua modernizatzeko neurriei buruzko azaroaren 16ko 57/2003 legearen bitartez aldatua) eskatzen duten Udalbatzako legezko kide kopuruaren gehiengo absolutua lortuta, honako hau erabaki du:

1.) Maria Isabel Alzuguren Petrirena andreak sustaturiko herri-ondasunen transakzio-hitzarmena onestea, Arrizu finkako zuhaitzen aprobetxamendua definitzeko baldintzapean.

2.) Sustatzaileari jakinaraztea Herriko Etxera etorri beharko duela hura sinatzera.

3.) Aitzineko puntuan xedatutakoa betetakoan, Nafarroako Gobernuari bidaltzea errandako dokumentu guzien kopia izapidetuak, hark onespena emateko, Oinarrietako 14. artikuluak dioenaren arabera.

4.) 2004ko apirilaren 30eko Osoko Bilkuran Udalak onartutakoaren arabera, herri-

ondasunen transakzio-hitzarmenean sartzen den landa-lurreko metro koadroa 0,16 eurotan balioetsiko da.

7.-JOSE OLASAGASTI PORTU JAUNAK ETA SEBASTIAN OLASAGASTI PORTU JAUNAK SUSTATURIKO HERRI-ONDASUNEI BURUZKO TRANSAKZIO HITZARMENA

1995eko urriaren 23ko Nafarroako 131. Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 457/1995 Foru Dekretua, urriaren 9koa, Lesakako herri-ondasunak berreskuratzeko Transakzio Hitzarmenaren Oinarriak onesten zituena. Nafarroako Gobernuak, 2020ko uztailaren 1ean egindako bilkuran, oinarri horien 5. artikulua aldatu eta onartu du.

Espedientean ageri da Jose Olasagasti Portu jaunak eta Sebastian Olasagasti Portu jaunak sustatu duten dokumentuaren zirriborroa.

Hitzarmenaren xede den azalera 4.214,00 m2-koa da. Eragiketaren ondorioz, 1.053,50 m2 partikularrarentzat izanen dira, eta 3.160,50 m2 herri-jabetzakoak.

Agiriak dagokion txostena darama, Andres Zelaieta teknikari jaunak egina.

Halaber, bada Nafarroako Gobernuko Herrilurren Atalak 2022ko azaroaren 2an idatzitako aldez aurretiko aldeko txostena. Hor adierazten denaren arabera, partikularrak beretzat hartzen duen finka haraneko eta basoko hondoko belardiak eta laboreak, ingurumen- eta ekoizpen-balioa dutenak gisa sailkatua dago eta bertan errekaren paraleloan 3 metroko zerrenda bat utziko da komunal gisa, errekaren ondoan dagoen zentral hidroelektrikora sartzeko.

Zirriborroak Udaleko Mendiko Batzordearen oniritzia ere jaso du.

Espedientean, halaber, Udaleko idazkariak 2023ko urtarrilaren 20an eginiko txosten bat ageri da.

Hori dena ikusita, Osoko Bilkurak, kide guztien aho bateko botoarekin, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 116.1 artikuluak eta Toki Erregimeneko Oinarriei buruzko 7/1985 Legearen 45.2.n artikuluak (toki-gobernua modernizatzeko neurriei buruzko azaroaren 16ko 57/2003 legearen bitartez aldatua) eskatzen duten Udalbatzako legezko kide kopuruaren gehiengo absolutua lortuta, honako hau erabaki du:

1.) Jose Olasagasti Portu jaunak eta Sebastian Olasagasti Portu jaunak sustaturiko herri-ondasunen transakzio-hitzarmena onestea, hartzen duten finkan errekaren paraleloan 3 metroko zerrenda bat uzteko baldintza pean, komunal gisa, errekaren ondoan dagoen zentral hidroelektrikora sartzeko.

2.) Sustatzaileei jakinaraztea Herriko Etxera etorri beharko dutela hura sinatzera.

3.) Aitzineko puntuan xedatutakoa betetakoan, Nafarroako Gobernuari bidaltzea errandako dokumentu guzien kopia izapidetuak, hark onespena emateko, Oinarrietako 14.

LESAKAKO UDALA
Plaza Zaharra, 1
31770 Lesaka (Nafarroa)
IFZ P3115200B
Telf. 948637005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

artikuluak dioenaren arabera.

4.) 2004ko apirilaren 30eko Osoko Bilkuran Udalak onartutakoaren arabera, herri-ondasunen transakzio-hitzarmenean sartzen den landa-lurreko metro koadroa 0,16 eurotan balioetsiko da.

8.- ALBERTO SANZ ORTEGA JAUNAK ETA MARIA ARANZAZU FEITO VERGARA ANDREAK SUSTATURIKO HERRI-ONDASUNEI BURUZKO TRANSAKZIO HITZARMENA

1995eko urriaren 23ko Nafarroako 131. Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 457/1995 Foru Dekretua, urriaren 9koa, Lesakako herri-ondasunak berreskuratzeko Transakzio Hitzarmenaren Oinarriak onesten zituena. Nafarroako Gobernuak, 2020ko uztailaren 1ean egindako bilkuran, oinarri horien 5. artikulua aldatu eta onartu du.

Espedientean ageri da Alberto Sanz Ortega jaunak eta Maria Aranzau Feito Vergara andreak sustatu duten dokumentuaren zirriborroa.

Hitzarmenaren xede den azalera 16.425,00 m2-koa da. Eragiketaren ondorioz, 4.106,25 m2 partikularrarentzat izanen dira, eta 12.318,75 m2 herri-jabetzakoak.

Agiriak dagokion txostena darama, Andres Zelaieta teknikari jaunak egina.

Halaber, bada Nafarroako Gobernuko Herrilurren Atalak 2022ko azaroaren 2an idatzitako aldez aurretiko aldeko txostena. Hor adierazten denaren arabera, partikularrak beretzat hartzen duten finka haraneko eta basoko hondoko belardiak eta laboreak gisa sailkatua dago.

Zirriborroak Udaleko Mendiko Batzordearen oniritzia ere jaso du.

Espedientean, halaber, Udaleko idazkariak 2023ko urtarrilaren 20an eginiko txosten bat ageri da.

Hori dena ikusita, Osoko Bilkurak, kide guztien aho bateko botoarekin, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 116.1 artikuluak eta Toki Erregimeneko Oinarriei buruzko 7/1985 Legearen 45.2.n artikuluak (toki-gobernua modernizatzeko neurriei buruzko azaroaren 16ko 57/2003 legearen bitartez aldatua) eskatzen duten Udalbatzako legezko kide kopuruaren gehiengo absolutua lortuta, honako hau erabaki du:

1.) Alberto Sanz Ortega jaunak eta María Aranzazu Feito Vergara andreak sustaturiko

herri-ondasunen transakzio-hitzarmena onestea.

2.) Sustatzaileei jakinaraztea Herriko Etxera etorri beharko dutela hura sinatzera.

3.) Aitzineko puntuan xedatutakoa betetakoan, Nafarroako Gobernuari bidaltzea errandako dokumentu guzien kopia izapidetuak, hark onespena emateko, Oinarrietako 14. artikuluak dioenaren arabera.

4.) 2004ko apirilaren 30eko Osoko Bilkuran Udalak onartutakoaren arabera, herri-ondasunen transakzio-hitzarmenean sartzen den landa-lurreko metro koadroa 0,16 eurotan balioetsiko da.

9.-MARIA LOURDES ANCHORDOQUI RETEGUI ANDREAK SUSTATURIKO HERRI-ONDASUNEI BURUZKO TRANSAKZIO HITZARMENA

1995eko urriaren 23ko Nafarroako 131. Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 457/1995 Foru Dekretua, urriaren 9koa, Lesakako herri-ondasunak berreskuratzeko Transakzio Hitzarmenaren Oinarriak onesten zituena. Nafarroako Gobernuak, 2020ko uztailaren 1ean egindako bilkuran, oinarri horien 5. artikulua aldatu eta onartu du.

Espedientean ageri da Maria Lourdes Anchordoqui Retegui andreak sustatu duen dokumentuaren zirriborroa.

Hitzarmenaren xede den azalera 53.948,00 m2-koa da. Eragiketaren ondorioz, 13.487,00 m2 partikularrarentzat izanen dira, eta 40.461,00 m2 herri-jabetzakoak.

Agiriak dagokion txostena darama, Andres Zelaieta teknikari jaunak egina.

Halaber, bada Nafarroako Gobernuko Herrilurren Atalak 2022ko azaroaren 2an idatzitako aldez aurretiko aldeko txostena. Hor adierazten denaren arabera, partikularrak beretzat hartzen duen finka ingurumen-balioa eta balio ekoizlea duten basoak gisa sailkatua dago, baldintzatzen da azalera titulura eokitzera, 1973,1974 eta 1976ko erregistro-finken neurketa egitera eta 3. poligonoko 28. partzelaren egoera aztertzera.

Zirriborroak Udaleko Mendiko Batzordearen oniritzia ere jaso du.

Espedientean, halaber, Udaleko idazkariak 2023ko urtarrilaren 20an eginiko txosten bat ageri da.

Hori dena ikusita, Osoko Bilkurak, kide guztien aho bateko botoarekin, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 116.1 artikuluak eta Toki Erregimeneko Oinarriei buruzko 7/1985 Legearen 45.2.n artikuluak (toki-gobernua modernizatzeko neurriei buruzko azaroaren 16ko 57/2003 legearen bitartez aldatua) eskatzen duten Udalbatzako legezko kide kopuruaren gehiengo absolutua lortuta, honako hau erabaki du:

1.) Maria Lourdes Anchordoqui Retegui andreak sustaturiko herri-ondasunen transakzio-

LESAKAKO UDALA
Plaza Zaharra, 1
31770 Lesaka (Nafarroa)
IFZ P3115200B
Telf. 948637005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

hitzarmena onestea, Herri Lur Zerbitzuak jarritako baldintzak egitera.

2.) Sustatzaileari jakinaraztea Herriko Etxera etorri beharko duela hura sinatzera.

3.) Aitzineko puntuan xedatutakoa betetakoan, Nafarroako Gobernuari bidaltzea errandako dokumentu guzien kopia izapidetuak, hark onespena emateko, Oinarrietako 14. artikuluak dioenaren arabera.

4.) 2004ko apirilaren 30eko Osoko Bilkuran Udalak onartutakoaren arabera, herri-ondasunen transakzio-hitzarmenean sartzen den landa-lurreko metro koadroa 0,16 eurotan balioetsiko da.

10.-SUSTATURIKO TRANSAKZIO HITZARMENAK: ERAGINDAKO LURSAILAK KATASTROAN SARTZEA.

Lesakako Udalbatzak herri-ondasunen transakzio-hitzarmenak izapidetu ditu. Zehazki, besteak beste, 2022ko martxoaren 17an, egindako udako bilkuran (2022ko ekainaren 16ako udal bilkuran aldatua), Esteban Irazoqui Irazoqui jaunak sustatutako onartu zuen.

Geroago, hitzarmen hau dagokion kontratua onartuak izan da Nafarroako Gobernuko 2022ko azaroaren 30eko akordioaren bidez.

Espedientea 2022ko abenduaren 22an izandako Mendi Batzordean aztertu zen.

Orain, onespenaren ondoren, notario eskritura egitea eta hitzarmenaren xedea diren lursail horiek Jabetza-Erregistroan inskribatzea egokitzen da.

Baino, eskritura egin aurretik, komenigarria da onartutako hitzarmenetan agertzen diren lursail horiek eta titulartasun partikularrak direnak, katastroan sartzea. Horrela, lortzen da, eskritura egokitua gelditzea, azaleran eta mugetan, katastroan iada sartuak diren lursailetara.

Hori dena ikusita, Osoko Bilkurak, aho batez honako hau erabaki du:

1.) Nafarroako Gobernuaren akordioak ebazpenek onartutako transakzio-hitzarmena datozen katastro aldaketak onestea, eragindako lursailak katastroan sar daitezen, esaten diren neurriekin.

2.) Tracasa-ri eskatzea, katastroko aldaketa hauen tramitazioa, behar diren notario-

eskriturak egin ahal izateko eta onartutako hitzarmenen ondorioz onartutako erregistroan izen emateak egiteko.

3.) Akordio hau halaber jakinaraztea Esteban Irazoqui Irazoqui jaunari eta Nafarroako Gobernuko Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuko Nekazaritzako Zerbitzuaren Herrilurren Atalari.

11.-AINHOA PORTU GARCIA ANDREAK ESKATUTAKO OIHAN APROBETXAMENDUA.

2022ko azaroaren 29an (4769. sarrera Udaleko Erregistro Orokorrean) aurkezturiko eskaera aztertuta, Osoko Bilkurak honako hau erabaki du aho batez:

1.) Nafarroako Gobernuko Oihanaren Kudeaketa Zerbitzuaren aitzinean tramitatzea Ainhoa Portu Garcia andreak eginiko eskaera, honako aprobetxamendu hau egiteko: zuhaitzen bakantzea, Katazpegi parajean (douglas izeia). Moztu behar den azalera 1.200,00m2 –koa da. Katastroko 10. poligonoko 152. partzelako D azpipartzelaren zati bati dagokio, eta katastroko 10. poligonoko 153. partzelari.

2.) Lanak hasi baino lehen horren berri eman beharko dio Udalari, eta baita aprobetxamendua amaitu baino lehen ere, hark egiaztatu ahal izateko nola gelditu diren erabili diren bideak.

Halaber, ezarritako fidantza eta tasa jarri beharko ditu, eta horren zenbatekoa jakinaraziko zaio. Lanetarako kamioiak edo bertzelako makinaria astuna erabiliko ez duten partikularrek ez dute fidantza eta tasarik jarri beharko, beti ere hau horrela izanen dela eta sor ditzaketen kalteez kargu eginen direla idatziz ziurtatzen badute. Hau ez betetzea arau-haustea kontsideratua izanen da eta ondorengo isuna jarriko zaio: eskatutako metro kubiko bakoitzeko 3 €, eta gutxieneko isuna 300 €-koa izanen da, gainera sortu ditzakeen kalteez kargu eginen delarik baimen eskatzailea.

3.) Bideak ezin izanen dira egoera txarrean utzi. Hori gertatuz gero, hamabortz eguneko epea emanen zaio hariek konpontzeko. Bertzela, Udalak berak moldatuko ditu, aprobetxamendua egin duen jabearen kontura.

Orokorrean, eguraldi euritsuarekin ezin izanen da egurrik garraiatu, baldin eta horretarako baimen espresa ematen ez bazaio.

4.) Pista berriak irekitzeko Udaleko berariazko baimena behar du.

5.) Eskatzaileari jakinaraztea, finkak komunala ageri direla udal katastroan, eta, ondorioz, erabaki honek ez duela deus adierazten lur-eremuaren jabetzari buruz.

12.-JAVIER ALZUGARAY ALMANDOZ JAUNAK ESKATUTAKO OIHAN APROBETXAMENDUA.

2023ko urtarrilaren 4an (28. sarrera Udaleko Erregistro Orokorrean) aurkezturiko eskaera aztertuta, Osoko Bilkurak honako hau erabaki du aho batez:

1.) Nafarroako Gobernuko Oihanaren Kudeaketa Zerbitzuaren aitzinean tramitatzea Javier

LESAKAKO UDALA
Plaza Zaharra, 1
31770 Lesaka (Nafarroa)
IFZ P3115200B
Telf. 948637005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

Alzugaray Almandoz jaunak eginiko eskaera, honako aprobetxamendu hau egiteko: zuhaitzen matarrasa, Otsango parajean (hostotsuak, akaziak, gaztainondoak eta haritz amerikarra). Moztu behar den azalera 10.155,90m2 –koa da. Katastroko 2. poligonoko 709. partzelaren A,B,C azpipartzeleei dagokio.

2.) Lanak hasi baino lehen horren berri eman beharko dio Udalari, eta baita aprobetxamendua amaitu baino lehen ere, hark egiaztatu ahal izateko nola gelditu diren erabili diren bideak.

Halaber, ezarritako fidantza eta tasa jarri beharko ditu, eta horren zenbatekoa jakinaraziko zaio. Lanetarako kamioiak edo bertzelako makinaria astuna erabiliko ez duten partikularrek ez dute fidantza eta tasarik jarri beharko, beti ere hau horrela izanen dela eta sor ditzaketen kalteez kargu eginen direla idatziz ziurtatzen badute. Hau ez betetzea arau-haustea kontsideratua izanen da eta ondorengo isuna jarriko zaio: eskatutako metro kubiko bakoitzeko 3 €, eta gutxieneko isuna 300 €-koa izanen da, gainera sortu ditzakeen kalteez kargu eginen delarik baimen eskatzailea.

3.) Bideak ezin izanen dira egoera txarrean utzi. Hori gertatuz gero, hamabortz eguneko epea emanen zaio hariek konpontzeko. Bertzela, Udalak berak moldatuko ditu, aprobetxamendua egin duen jabearen kontura.

Orokorrean, eguraldi euritsuarekin ezin izanen da egurrik garraiatu, baldin eta horretarako baimen espresa ematen ez bazaio.

4.) Pista berriak irekitzeko Udaleko berariazko baimena behar du.

5.) Eskatzaileari jakinaraztea, finka komunala ageri dela udal katastroan, eta, ondorioz, erabaki honek ez duela deus adierazten lur-eremuaren jabetzari buruz.

13.-FRANCISCO JAVIER SUSPERREGUI INDA JAUNAK ESKATUTAKO OIHAN APROBETXAMENDUA.

2022ko abenduaren 29an (5133. sarrera Udaleko Erregistro Orokorrean) aurkezturiko eskaera aztertuta, Osoko Bilkurak honako hau erabaki du aho batez:

1.) Nafarroako Gobernuko Oihanaren Kudeaketa Zerbitzuaren aitzinean tramitatzea Francisco Susperregui Inda jaunak eginiko eskaera, honako aprobetxamendu hau egiteko: zuhaitzen matarrasa, Urraba parajean (insignis pinua eta haritz amerikarraren alertzea).. Moztu behar den azalera 15.840,00m2 –koa da. Katastroko 5. poligonoko 12.. partzelaren F,G eta L azpipartzeleei dagokio.

2.) Lanak hasi baino lehen horren berri eman beharko dio Udalari, eta baita aprobetxamendua amaitu baino lehen ere, hark egiaztatu ahal izateko nola gelditu diren erabili

diren bideak.

Halaber, ezarritako fidantza eta tasa jarri beharko ditu, eta horren zenbatekoa jakinaraziko zaio. Lanetarako kamioiak edo bertzelako makinaria astuna erabiliko ez duten partikularrek ez dute fidantza eta tasarik jarri beharko, beti ere hau horrela izanen dela eta sor ditzaketen kalteez kargu eginen direla idatziz ziurtatzen badute. Hau ez betetzea arau-haustea kontsideratua izanen da eta ondorengo isuna jarriko zaio: eskatutako metro kubiko bakoitzeko 3 €, eta gutxieneko isuna 300 €-koa izanen da, gainera sortu ditzakeen kalteez kargu eginen delarik baimen eskatzailea.

3.) Bideak ezin izanen dira egoera txarrean utzi. Hori gertatuz gero, hamabortz eguneko epea emanen zaio hariek konpontzeko. Bertzela, Udalak berak moldatuko ditu, aprobetxamendua egin duen jabearen kontura.

Orokorrean, eguraldi euritsuarekin ezin izanen da egurrik garraiatu, baldin eta horretarako baimen espresa ematen ez bazaio.

4.) Pista berriak irekitzeko Udaleko berariazko baimena behar du.

5.) Eskatzaileari jakinaraztea, finka komunala ageri dela udal katastroan, eta, ondorioz, erabaki honek ez duela deus adierazten lur-eremuaren jabetzari buruz.

14.- BAZTAN-BIDASOA-MALERREKA MAEP EKINTZA PLANAREN ONESPENA.

2020ko urriaren 26an Arantza, Baztan, Beintza-Labaien, Bera, Bertizarana, Donamaria, Doneztebe, Eratsun, Etxalar, Ezkurra, Igantzi, Ituren, Lesaka, Oitz, Saldias, Urrotz eta Zubieta udalerriek sinatu zen toki-arteko administrazio arteko lankidetza-hitzarmena, udalerri sinatzaileen lurralderako Merkataritza Erakarpen eta Antolamendurako Plan bat (aurrerantzean, Eskualdeko MEAP) lizitatu, kontratatu, garatu eta onartzeko, eta horren bidez Nafarroan merkataritza arautzen duen uztailaren 12ko 17/2001 Foru Legearen 18. artikuluan ezarritakoa bete eta, ondoren, udalerri bakoitzeko Udal Plan Orokorretan txertatzeko.

2022ko urriaren 19an, Eskualdeko MEAParen Jarraipen Batzordeak tresna hori hasieran onestea erabaki zuen, eta Doneztebeko Udalak, lehen aipatutako toki-arteko administrazio arteko lankidetza-hitzarmenaren oinarrian, jendaurrean jarri zuen, 2022ko azaroaren 15eko 226 zenbakidun Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarkiaren bidez.

2023ko urtarrilaren 18an, jendaurrean egon ondoren, Eskualdeko MEAParen Jarraipen Batzordeak tresna hori behin betiko onartzea erabaki zuen.

Aipatutako toki-arteko administrazio arteko lankidetza-hitzarmenaren hirugarren klausularen arabera, udal sinatzaileek udal-plan orokor bakoitzean barneratu eta txertatu behar dute eskualdeko MEAPa, edo plan horren zehaztapenak. Hori dela eta, Osoko Bilkurari espedienteko agertzen den akordioa onartzea proposatzen da.

LESAKAKO UDALA
Plaza Zaharra, 1
31770 Lesaka (Nafarroa)
IFZ P3115200B
Telf. 948637005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

Jose Luis Echegaray Andueza jaunak jakinarazi du ez dela denborarik izan puntua behar bezala aztertzeko, ez eta Udal Planean horrek dakartzan ondorioak ezagutzeko ere; mahai gainean uzteko eskatu du, aztertzeko.

Mattin Etxabide Gartzia jaunak, kasu horretan, hurrengo bilkurarako uztea planteatu du.

Alkateak jakinarazi du eskualdeko udal guztiek onartu behar dutela Udal Planean sartzeko.

Jose Luis Echegaray Andueza jaunak esan du planak merkataritzari eta lurzoru urbanizaezina bezalako beste alderdi batzuei eragiten diela dirudiela, eta aztertu egin behar dela azpimarratu du.

Mattin Etxabide Gartzia jaunak hilabete batez uztea planteatu du, hurrengo osoko bilkurara arte.

Alkateak esan du aho batez onartzea komeni dela, horretarako ildo nagusiak ezarri behar baitira.

Aho batez erabaki da puntu hori mahai gainean uztea.

15.- UDAL PLAN BERRIA IDAZTEKO AKORDIOA.

Lesakako Udal Plana 1999. urtekoa da.

Azken urte hauetan maila handiagoko hainbat lege-testu onartu dira, hala nola Lurralde Antolakuntzari buruzko 35/2022 Foru Legea, Lurralde Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onartzen duen 1/2017 Foru Dekretua eta POT2 Lurralde Antolamenduko Plana.

Planaren antzinatasunak eta lege-aldaketek beharrezko egiten dute Udal Plana legezko gogoeta berrietara eta udal eta foru helburu berrietara egokitzea, udalerriaren errealitate sozial eta ekonomiko berriaren arabera.

Hori dela eta, beharrezkoa da Plana berrikustea eta Osoko Bilkurak horretarako beharrezkoak diren izapideak hasteko erabakia hartzea.

Udalbatzak, aho batez, honako hau erabaki du:

1.) Udal Plan berri bat egiteko espedientea izapidetzen hastea onartzea.

2.) Antolamendu, Etxebizitza, Paisaia eta Proiektu Estrategikoen Departamentuaren laguntza teknikoa eta ekonomikoa eskatzea, udal hirigintza planeamendua prestatzeko laguntzen araubidea ezartzen duen azaroaren 16ko 98/2022 Foru Dekretuaren arabera.

3.) Erabaki hau aipatutako Departamentuari helaraztea.

16.-NAFARROAKO TORTURATUEN SAREA ELKARTEAK AURKEZTUTAKO MOZIOAREN ONESPENA.

"Nafarroako Torturatuen Sarea" elkarteak Iban Garro Alzuri zinegotziak irakurri duen mozioa bidali du Udal honetara. Mozioaren edukia honako hau da:

"1.-Lesakako Udalak elkartasuna eta aitortza agertzen du torturaren eta tratu txarren biktima diren nafarrei, eta, bereziki, udalerri honetako bizilagunei.

2.-Udalak bere konpromisoa adierazten du egiaren ezagutzan eta egon litezkeen kasuen erreparazioan laguntzeko.

3.-Udalak Nafarroako Gobernuari eskatzen dio tortura eta tratu txarren praktika saihesteko eta ezabatzeko beharrezkoak diren jarduketa guztiak egin ditzala, ez errepikatzeko mekanismoak ezarriz.

4.-Udalak ebazpen honen berri emanen die Nafarroako Gobernuari, Herritarrekiko Harremanetarako Kontseilaritzari eta Bake eta Bizikidetza Departamentuko Zuzendaritza Nagusiari jakinaren gainean egon daitezen, eta onespenaren berri emanen dio "Nafarroako Torturatuen Sarea" Elkarteari, helbide elektroniko honetan: nts.harremanak@ gmail.com".

Aho batez, erabaki du:

1.) Aipatutako mozioa onartzea.

2.) Akordioa hau Nafarroako Gobernuari, Herritarrekiko Harremanetarako Kontseilaritzari eta Bake eta Bizikidetza Departamentuko Zuzendaritza Nagusiari eta "Nafarroako Torturatuen Sarea" Elkarteari jakinaraztea.

17.-ALKATETZAREN EBAZPENEN BERRI EMATEA.

Zinegotzi guziei pasatu zaie, posta elektronikoz, azken bi osoko bilkuratik gaur arte Alkatetzak emaniko ebazpenen zerrenda (581/2022 ebazpenetik 629/2023 ebazpena arte eta 1/2023 ebazpenetik 29/2023 ebazpena arte). Ez dutenei, aipatu zerrenda horren paperean inprimaturiko kopia bana utzi zaie, bakoitzari dagokion erretiluan.

LESAKAKO UDALA
Plaza Zaharra, 1
31770 Lesaka (Nafarroa)
IFZ P3115200B
Telf. 948637005
www.lesaka.eus
udala@lesaka.eus

18.-OSOKO BILKURAREN KONTROL-JARDUERA. ESKARI ETA GALDERAK.

Ez dira izan.

Aipaturiko eguneko ilunabarreko zazpiak eta hemezortzi minutuak direla, eta eztabaidatzeko gai gehiago ez dagoenez, alkate jaunak akabatutzat eman du bilera. Nik, idazkariak, egiaztatu egiten dut.

LESAKAKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE LESAKA